



EBAZPENA, 2020ko urriaren 20koa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, zeinaren bidez ebazten baita 2020-2022 epealdian Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2020-2021 aldian Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako proiektuak egiteko laguntzak emateko deialdia.

Hezkuntza sailburuaren 2019ko abenduaren 10eko Aginduak (EHAA, 240 zk., 2019ko abenduaren 18koa), 2020-2022 epealdian Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuak egiteko laguntzak, eta 2020-2021 aldian Unibertsitatea-Enpresa ekintzetarako aurreikusitako funtsen kargura Ikerketa eta Berrikuntza Teknologikorako laguntzak emateko deialdia egiten du.

Hautapen Batzordeak aginduaren 10. eta 11. artikuluek ezarritakoaren arabera esleipen-proposamena egin zuen. Proposamen hori ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Ebazpen honen 1.1 eranskinean ageri diren erakundeei bertan zehazten diren diru-laguntzak ematea, «Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuetarako laguntza-lerroko» 1. modalitateko ikerketa-proiektuak egiteko.

Bigarrena.- Ebazpen honen 2.1 eranskinean ageri diren erakundeei bertan zehazten diren diru-laguntzak ematea «Ezagutza Unibertsitatetik Enpresetara eramatea helburu duten ikerketa-proiektuetarako laguntza-lerroko» ikerketa-proiektuak egiteko.

Hirugarrena Laugarrena.- Ebazpen honen 1.2 eranskinean ageri diren «Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuetarako laguntza-lerroan» aurkeztutako eskaerak baztertzea bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Laugarrena.- Ebazpen honen 2.2 eranskinean ageri diren «Ezagutza Unibertsitatetik Enpresetara eramatea helburu duten ikerketa-proiektuetarako laguntza-lerroan» aurkeztutako eskaerak baztertzea bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Bosgarrena.- Ebazpen honen 1.3 eranskinean ageri diren «Oinarrizko Ikerketako eta/edo Ikerketa Aplikatuko proiektuetarako laguntza-lerroan» aurkeztutako eskaerak ezestea aurrekontu-kreditua agortzeagatik edo eskatutako gutxieneko puntuazioa ez lortzeagatik.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen aurka gorako errekurtsoa jarri ahal izango da Hezkuntza sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 20an.

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea
ADOLFO MORAIS EZQUERRO



HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN